



FOROAREN AKTA- AGENDA 21eko LANTALDEA
Legazpiko Tokiko Agenda 21

Eguna: 2006/04/06	Ordua eta iraupena: 18:30, ordu eta erdi	Lekua: Legazpiko udaletxea
----------------------	---	-------------------------------

Hasiera ez duenak urrun du amaiera.
Alain (1868-1951) *Filosofo eta saikaera-idazle frantsesa.*

Gaur, Legazpiko Agenda 21eko lantaldean **mugikortasunaren gaia** lantzen hasi nahi izan dugu. Esperientzia berria den arren eta aurrekariak ez baditugu ere, ziur gaude elkarrekin egingo dugun bideak emaitza onak emango dituela, norberarentzat, taldearentzat nahiz herriarentzat.

Adore horrekin eta ilusioarekin, lanean hasten gara!

Gaur bildu gara

37 lagun. Abiapuntu garrantzitsua da Legazpin barne-mugikortasunaren gai korapilotsua aztertzen hasteko.

Izena	Noren izenean:	Izena	Noren izenean:
▪ Milagros Noguera	Legazpiarra	▪ Emilio Cámara Ibañez	Buskabaso
▪ Begoña Lekue	Iratzarri elkarte	▪ Gerardo Antón	Legazpiko Udaleko zinegotzia
▪ Maria Inés Corral	Iratzarri elkarte	▪ Joxan Auzmendi	CEIDA-Legazpi
▪ M ^a Gloria Martínez de Guereñu	Legazpiko Udaleko zinegotzia	▪ Ruben García Andres	GSB Forja
▪ Montse Vallejo	APA- Olazabal Institutua	▪ Olivia Aparicio Felton	GSB Forja
▪ Florentino Gutierrez	Fundiciones Bereciartu	▪ Antton Reyes Prieto	Legazpiarra
▪ Sole Aróstegui	Legazpiarra	▪ Alonso Frances Alustiza	Legazpiko Udaleko aparejadorea
▪ Jose Dorronsoro	APA-Haztegi	▪ Juncal Fernandez	Legazpiarra
▪ Lurdes Etxaniz	Eiluz	▪ M ^a Jesus Ugalde	Arriurdin Auzo Elkarte
▪ Agustina Romaratezabala	Eiluz	▪ Belen Madinabeitia	Brinkolako auzotarra
▪ Martin González Ausin	Legazpiarra	▪ Anastasio Clavo	Bellota
▪ Txomin Casado	Korosti Txirrindulari Elkarte	▪ Josune Makaia	UGGASA
▪ Jose Ignacio Gil	Gipuzkoako Urak	▪ Jose Luis Zabaleta	Legazpiko Udaleko zinegotzia
▪ Eugenio Gil	Korosti Txirrindulari Elkarte	▪ Fco. Javier Iraeta	GKN Driveline Legazpi SA
▪ Fernando Martínez de Albéniz	Legazpiarra	▪ Kizkitza Oria	ILINTI elkarte
▪ Jose Luis Cid Delgado	Legazpiko Udaleko zinegotzia	▪ Juan Ramon Larrañaga	Legazpiko Alkatea
▪ Fernando Agirre	Udaltzainburua	▪ Inma Hernandez	Udaleko Agenda 21eko teknikaria
▪ Bixente Garmendia	Legazpiko Udaleko zinegotzia	▪ Iciar Montejo y Zorione Aierbe	Prometea, SC





FOROAREN AKTA- AGENDA 21eko LANTALDEA
Legazpiko Tokiko Agenda 21

Eguna: 2006/04/06	Ordua eta iraupena: 18:30, ordu eta erdi	Lekua: Legazpiko udaletxea
----------------------	---	-------------------------------

Legazpin barne-mugikortasunaren gaia aztertzen hasteko

Joan den 2006ko martxoaren 23an egin genuen bileran gai hori aukeratu genuen "esperimentu" gisa lantaldeak azter dezan. Gai korapilotsua da baina aztertu beharrekoa Legazpin mugikortasun iraunkorra sustatu nahi bada; beraz, motordun ibilgailuetan ez dabiltzanentzako (oinezkoak, bizikletariak, mugikortasun mugatua duten pertsonak,...) gune egokiak sustatuko duten hirigintza mailako ekintzetan eta diseinuan kontutan hartu beharreko gaia da

Gure lehenengo lana: mugikortasunaren ikuspegitik Legazpiko errealitatea zehatz-mehatz aztertzea eta "leku kritikoak" antzematea.

Horretarako, udalerriko plano handi bat eta norberarentzako plano txikiak erabili ditugu. Horrekin, Legazpiren errealitatea ezagutu nahi izan dugu eta oinezkoaren eta bizikletariaren ikuspegitik udalerriko barne-mugikortasunaren argazkia aterako dugu.

Norberaren hausnarketatik abiatuz, bileran parte hartu duen kide bakoitzak antzemandako leku kritikoak planoan azaltzen saiatu da; ondoren, denen aurrean azaldu ditugu norberaren lekuak eta horien gainean eztabaida sortu da.

Ondorioz, ondoko koadroan zehatz-mehatz jaso dira egin diren ekarpen desberdinak eta, segidan, 5. orrialdean ageri den planoan jaso dira.

Koloreen kodeak:

Leku kritikoak oinezkoen eta/edo mugikortasun mugatua duten pertsonen ikuspegitik.	Orange
Leku kritikoak ibilgailuaren ikuspegitik.	Blue
Leku kritikoak bizikleta erabiltzen dutenen ikuspegitik.	Green

Zenbakia	Leku kritikoaren xehetasuna	Oharra, xehetasuna, iruzkina
1	Patrizio Etxeberria kalea (gaur egun obretan).	Espaloi estuak, 3-5-7-9 zenbakidun atarietan
2	Arantzazu auzoa, harategia dagoen lekua	
3	Santikutz kalea (Arantzazu auzoko bidetik, Sukiaren etxeak).	Zuhaitzek espaloia estutzen dute; Ikastolara iristean espaloia lekuz aldatzen da, aparkalekuak daudelako.
4	Musika Eskolara joateko zebrabidea	Leku kritikoa da, saihezbidea egin eta gero.
5	Industrialdera joateko zebrabideak	Bide horretan handia da zirkulazioa. Ibilgailuak normalean ez dira zebrabideetan gelditzen. Ibilgailuentzat ere leku kritikoak dira, ikusgaitasunik ez dagoelako.
6	San Inazio auzoa. Itxaropen auzora doan San Martin auzoko bidegurutzea.	Bidegurutze arriskutsua; ez dira Itxaropen auzotik datozen ibilgailuak ikusten.
7	Latxartegiko eskailerak	Oso aldapatsuak dira (pertsona nagusiek arazoak dituzte...).
8	San Martin auzora doan antzinako bidea.	Oso aldapatsua da (pertsona nagusiek arazoak dituzte...).
9	Itxaropen auzora doazen botika ondoko eskailerak.	Gainera, Aizkorri kalea bera da leku kritikoa, 16 zenbakitik udaletxera bitartekoa.
10*	Txorroneako bidegurutzea	Hemen zebrabidea dago baina bidegurutzearen ezaugarriak direla-eta, zalantzak sortzen dira lehentasuna oinezkoak edo ibilgailuak duen erabakitzerakoan.

FOROAREN AKTA- AGENDA 21eko LANTALDEA
Legazpiko Tokiko Agenda 21

Eguna: 2006/04/06	Ordua eta iraupena: 18:30, ordu eta erdi	Lekua: Legazpiko udaletxea
----------------------	---	-------------------------------

Zenbakia	Leku kritikoaren xehetasuna	Oharra, xehetasuna, iruzkina
11*	Gasolindegia (Mirandaolarantz, kiroldegia igaro eta gero).	Ibilgailuek ez dituzte zebra-bideak errespetatzen.
12	Legazpi-Urretxu bidegorria	Arazoak bizikletarien eta oinezkoen artean.
13*	Legazpiko hirigunetik Mirandaolara doan bidea.	Jendeak ibilgailuak dabiltzan bidetik joan behar du eta ez dago ez espaloirik ez bazterbiderik.
14	Laubide auzoa, 26 (Laubide tabernaren atzealdea).	Irisgarritasun arazoak.
15	Laubide dantzaleku zaharraren ondoko espaloia.	Ibilgailuak espaloiara sartzen dira (aparkalekuak kendu egin ziren).
16	Laubide.	Ibilgailuak espaloietan aparkatzen dira eta herritarrek ezin dute bertatik pasatu.
17*	Brinkolara doan bidea	Elkarbizitza- eta erabilera-arazoak daude ibilgailuen (bi norabidetan dabiltzanak), bizikletarien eta oinezkoen artean.
18	Aparkalekuaren irteera.	Arazoak sortzen dira aparkalekutik irteten den ibilgailuaren eta bertatik igaro diren ibilgailuen artean.
19	Latxartegi parkeko horma bukatzen den lekua.	Putzu bat dago eta horrek arazoak sortzen dizkie bertatik igaro behar dutenei.
20	San Inazio auzoko espaloiak (15-6-7 zenbakiak).	Espaloi estuak dira eta bidearen arrasean daude.
21	San Inazio auzoko eskailerak	Oso egoera txarrean daude.
22	Pentsio parean dagoen putzua.	Leku horretan putzu bat dago eta bizilagunek arazoak izaten dituzte bertatik igarotzean.
23	Latxartegi Parkea.	Mugikortasunaren ikuspegitik leku kritikoa ez bada ere, hobe daitezkeen hainbat aspektu jaso dira: jauzi-iturria (haurrak bertara erortzeko arriskua), parkea ez da funtzionala eta eserlekuak ez dira erosoak (batik bat adineko pertsonentzat).
24	Udaletxea eta Postetxea.	Irisgarritasun arazoak (ez dago irtenbide zuzena eta espaloiak oso altuak dira eta ez daude beheguneak).
25	Aizkorri kalea	Irisgarritasun arazoak (espaloietan ez daude beheguneak).
26*	Kiroldegiaren sarrera.	Irisgarritasun arazoak (arrapala bat dago baina estua da eta ez du eskubandarik).
27	Laubideko errotonda	Ez dago pertsonak pasatzeko espaloirik edo gaineko pasabiderik.
28*	Tren-geltokia.	Geltokira doan kalearen azkeneko aldean ez dago espaloirik. Gainera, sarritan, dauden espaloietan autoak egoten dira aparkatuta.
29	Industrialdean ibilgailuak aparkatzeko zailtasunak.	Patricio ondoko industria-pabilioian aparkalekua egokitzea proposatu da.
30	Patrizio Etxeberria kalea	Bide-diziplina betearazteko beharra; hezi beharra eta herritarren kontzientziatzea areagotu beharra.
31	Industrialdeko espaloietan (Urola kalea), ibilgailuak egoten dira aparkatuta.	
32	Patrizioko pentsioa, espaloia egoera txarrean.	Neguan irrist egiteko eta erortzeko arriskua areagotu egiten da.
33*	Urtatza auzoa	Hainbat lekutan ez dago espaloirik.
34*	Urtatza baserrira igotzeko bidea.	Aurreikusitako diren urbanizazio-lanekin leku kritiko hori konponduta geratuko da.
35	Bikuña plaza	Espaloi estua eta galtzadatik joan beharra.



**LEGAZPIKO
UDALA**




FOROAREN AKTA- AGENDA 21eko LANTALDEA
Legazpiko Tokiko Agenda 21

Eguna: 2006/04/06	Ordua eta iraupena: 18:30, ordu eta erdi	Lekua: Legazpiko udaletxea
-----------------------------	--	--------------------------------------

Zenbakia	Leku kritikoaren xehetasuna	Oharra, xehetasuna, iruzkina
36	Aizkorri kalea 16.	Irisgarritasun arazoa; Zati bat espaloirik gabe dago eta galtzadatik pasatu behar da edo beste aldera joan behar da espaloitik jarraitzeko.
37	Taxi-geltokia (Kale Nagusia / Nafarroa kalea) eta hoteleraino.	Espaloia estua da; gainera, hoteletik irteten diren ibilgailuek arazoak dituzten biratzeko eta espaloira igotzen dira.
38*	Leku gatazkatsua futbol-zelaiaren parean (Alm. Bilkura kalea) –parkea-.	
39	Urtatza auzotik jaisten den kalea ez dago bizikletentzako egokituta.	Haurrak eta gazteak kontrako norabidean ibiltzen dira eta horrek arriskua sortzen du.
40	Erabilera-arazoak ibilgailuen, oinezkoen eta bizikletarien artean.	Bizikletak espaloitik ibiltzen dira norabide batean nahiz bestean.
41	Hausnarketa: zergatik ez dira egokitzen bidegorriak errepideetan eta hirigintza-jarduketa berrietan?	Adibidez, Juanastegiko errepideetan.
42*	Hausnarketa: zergatik ez dira egokitzen bidegorriak errepideetan eta hirigintza-jarduketa berrietan?	Adibidez, kiroldegiko errotonda berrian ez da irizpide hori sartu.
43	Elkarbizitza-arazoa bidegorrian bizikletarien eta oinezkoen artean.	Oinezkoak bere egin du bidegorria eta bide hori bizikletan ibiltzen direnekin konpartitu behar du.

* **OHARRA:** izartxoak duten puntuak mapatik kanpo geratzen dira.





ACTA DEL FORO-GRUPO DE TRABAJO DE AGENDA 21 Agenda 21 Local de Legazpi

Fecha: 06/04/2006	Hora y duración: 18:30 horas, 1 hora y media	Lugar: Ayuntamiento de Legapi
----------------------	---	----------------------------------

Laburtuz, hona hemen eztabaidaren ondoren hasierako argazki honetatik atera ditugun alderdi adierazgarriak:

Azaletik, eta **mugikortasun iraunkorraren (oinezkoen eta bizikletarien ikuspegitik** ikusi eta aztertzen saiatu garena) ikuspegitik hiru dira Legazpin landu behar diren arloak:

1. Sentsibilizazioa eta bide-hezkuntza.

- Ahalegin berezia egin behar dugu ekintza horiek gidariei, bizikletariei eta oinezkoen zuzentzeko. Helburuak: erabileren elkarbizitza hobetzea, zirkulazio-arauak errespetatzea, arau-haustek gutxitzea eta ohitura txarrak baztertzea.
- Zehazki, aurrerago azertu daitezkeen hainbat kontu eta proposamen bururatu zaizkigu:
 - Bizikletariei dagokienez, komenigarria izango litzateke kaskoa erabiltzera derrigortzea? (neurri hori hartzeak ezarritakoa beteko dela egiaztatzea eta kontrolatzea suposatuko du).
 - Ibilgailuek oinezkoentzat bakarrik diren guneak erabil ez ditzaten (espaloiak, ...; ohituraz hainbat gauza egiteko espaloian aparkatzen da: kafea hartzeko, azokara joateko, kutxazainetik dirua ateratzeko...), ezinbestekoa da ezarrita dagoen Araudia zorrotz betearaztea eta zenbait kasutan trabak jartzea (leku zehatzetan pibotak jartzea adibidez).

2. Irisgarritasuna eta hirigintza.

- Hirigunea bailaran dago kokatuta eta horrek nahitaz desnibelak izatea dakar. Desnibel horiek pertsonen mugimendua oztopatzen dute. Horregatik ezinbestekoa da eskailerak egokitzea, arrapalak egitea, auzoetara doazen bideak moldatzea... Leku zehatz batzuetarako bestelako irtenbideak ere planteatu dira: eskailera mekanikoak edo igogailua jartzea,....; horien abantailak eta eragozpenak azertu beharko dira.
- Irisgarritasun bertikalaz gain, Legazpin irisgarritasun horizontala hobetu beharra dago (espaloien beheguneak, espaloien segida, ekipamendu publikoetarako sarbideak....) Horretarako, Legazpiko herritarren, eta batik bat zentzumen eta mugimen-arazoak dituztenen, bizi-kalitatea bermatuko duten hirigintzako neurri egokiak hartu behar dira.

3. Oinezkoen, bizikletarien eta ibilgailuen arteko elkarbizitza eta hirigintza.

- Erabileren artean dagoen gatazka benetako arazoa da udalerriko hainbat puntu eta gunetan.
- Kasu zehatzetan izan ezik (oinezkoen ibilbideak, bidegorria,...), ibilgailua da jaun eta jabe eta oinezkoen eta bizikletarien aurrean berak agintzen du bide publikoan. Horregatik, ezinbestekoa da erabilerak konpartitzea ahalbidetuko duten neurriak ezartzea hiri-ingurune atsegina eta segurua nahi baldin badugu.
- Legazpin badira bizikleta garraio-modutzat hartuta duten herritarrak baina ez daude horretarako egokitutako bide eta ibilbideak (horregatik sortzen dira sortzen diren arazoak: zirkulazio desegokia, espaloiak erabiltzea, eta abar).

Ikusiko dugunez, hiru arlo horiek ikuspegi zabal batetik egingo den azterketa sakona eta integrala eskatzen dute.



ACTA DEL FORO-GRUPO DE TRABAJO DE AGENDA 21 Agenda 21 Local de Legazpi

Fecha: 06/04/2006	Hora y duración: 18:30 horas, 1 hora y media	Lugar: Ayuntamiento de Legapi
----------------------	---	----------------------------------

Guztiarekin, zer? Hitzordu berria jartzen dugu eta "etxeko lanak"

Gaur elkarrekin egin dugun ahaleginari esker leku kritiko asko antzeman ditugu; antzemandako arazo batzuk errazak dira konpontzeko, beste batzuk ordea, hausnarketa sakonagoa eta neurri gogorragoak eta zailagoak jartzea eskatzen dute. Orain, udaletxeko arduradun politikoek eta teknikoek guzti hori aztertuko dute (azterketa horrek bat egingo du Arau Subsidiarioen berrikuspenarekin).

Bestetik, abiapuntu ederra da gure eginbeharrarekin jarraitzeko eta Legazpin barne-mugikortasun iraunkorra sustatzeko helburua lortzeko. Horretarako, urrats bat aurrera egingo dugu eta datorren maiatzaren 18an bilduko gara berriro, arratsaldeko 18:30an udaletxean.

Egun horretan, honako galderari erantzuten saiatuko gara

Zeintzuk dira Legazpiko **oinarrizko ibilbide "funtzionalak"**? (hau da, oinez edo bizikletaz egiten diren udalerriko ibilbide nagusiak; garrantzitsuak ekipamenduak edo udalerriko gune adierazgarriak elkar lortzen dutelako. Adibidez, ikastolatik kiroldegira, institututik udaletxeko plazara...

Zertarako? Gaur egin dugun "leku kritikoen mapa" oinarritzat hartuz, ibilbide funtzionalak sustatzean eta artikulatzean planteatzen zaizkigun trabak ikusi nahi ditugu. Helburua: Legazpin barne-mugikortasun iraunkorra ahalbidetuko duten irtenbide-proposamenak, behin-behineko alternatibak, ideiak,... denon artean lantzea.

Bi hitzetan, gogoan izan eta eskerrik asko!

Legazpiko Agenda 21eko lantaldearen hitzordu berria eta "etxeko lanak":

- Noiz?
Maiatzaren 18an, arratsaldeko 18:30an.
- Non?
Udaletxeko Batzar Aretoan.
- Ondoko galderei erantzunak aurkitzen saiatuko gara
Zeintzuk dira Legazpiko **oinarrizko ibilbide "funtzionalak"**?; zein leku kritikoek egiten dute bat proposatutako ibilbideekin?; zein irtenbide, proposamen, aukerak bururatzen zaizkigu?
- Horretarako, zein konpromiso hartu dugu?
Gaur jaso dugun mapan gure ustez Legazpin bultzatu eta egokitu behar diren oinezkoen edo bizikletan ibiltzeko **ibilbideak markatzea eta pentsatzea.**

Akta bukatzeko eskerrak eman nahi dizkiegu gaur bileran parte hartu duten guztiei; eskerrik asko, beraz, ikuspegiak eta kezak azalduz Legazpiko "leku kritikoen mapa" egitea ahalbidetu dutenei. Ziur gaude gaur hemen hasi dugun bideari jarraipena emateko gai izango garela.

Mila esker eta maiatzaren 18ra arte, ongi izan!